



ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA

ahm@altza.net

Lau-Haizeta, 21-3. ezk. 20017 ALTZA

Lege gordailua: SS103/97

ESTIBAUS

"aiuntados en el campo de Estibaus segun que lo havemos de uso de costumbre de nos juntar..." (Altza, 1390)

al tzatarren eguna / 2000KO AZAROA

El término municipal de la Villa de Altza

(El presente texto corresponde al borrador elaborado por AHM para el guión del video "Un paseo por las mugas de Altza" que realizó el taller de video Plazara con motivo del Altzatarren Eguna)

PRESENTACIÓN

Una de las características que identifican y definen un pueblo es el contar con un territorio que acoge dentro de sus límites a los miembros de una comunidad.

Como tal comunidad, Altza a lo largo de la historia ha ido definiendo su territorio tomando como punto de partida las casas y habitantes adscritos a la parroquia de San Marcial, hasta que con el tiempo logró formalizar jurídicamente su término municipal.

Tras la última anexión de 1940, el poder de decisión municipal se trasladó a San Sebastián y Altza pasó a ser parte de la periferia donostiarra. La pérdida de control y de decisión sobre su jurisdicción municipal trajo consigo el caos urbanístico que ha caracterizado estos últimos cincuenta años, con la construcción descontrolada de barriadas, bloques y torres, y una pésima planificación de red de calles y carreteras, que han contribuido a provocar una ruptura involuntaria de sus habitantes con un pasado y una geografía no tan lejanos, cuya raíz es en muchos casos, simplemente, el desconocimiento.

Paliar este déficit de información es lo que nos proponemos ahora. Que los altzatarras conozcan cual es

su término municipal y que a ellos les corresponde decidir cual debe ser su destino.

FORMACIÓN DEL TÉRMINO MUNICIPAL

La primera mención de Altza en la historia es de 1141 en la donación que el rey navarro García Ramírez hace a la iglesia de Pamplona. En ella habla de Alça "cum suis pertinentiis". Pocos años después el también rey navarro Sancho el Sabio renueva en 1178 la donación hecha por su antecesor, añadiendo en esta ocasión "cum totas suas pescarias". Tenemos, por tanto, que para el siglo XII, Altza existe ya con este nombre y cuenta con un territorio y una zona de pesca ubicadas, en buena lógica, en el río Urumea y en la bahía de Pasaia.

Pero será al final de la Edad Media, en 1390, cuando una nómina

de dieciocho altzatarras decidan fundar la parroquia de San Marcial en el campo de Estibaus, actual Casco de Altza. La fundación de la parroquia supuso además de un hito religioso la primera estructura de organización de la universidad y tierra de Altza, es decir, del conjunto de los altzatarras. En torno a la parroquia se reunirán en años sucesivos para solucionar sus problemas los propietarios y moradores de un número de casas que rondaban las ciento cincuenta.

En 1764 Altza contaba con ocho partidos, lo que hoy llamaríamos barrios: la Plaza (Casco), Arriaga (Roteta, Buenavista, Antxo), Miravalles (Artxipi bidea, Txipres), Amorededer (Lau-Haizeta), Sarroeta (Martutene), Sarategui (Intxaurrondo), Errera, y la Calzada (Bidebieta).

Pero la primera delimitación del Término Municipal de Altza no se va a producir hasta el año 1818, en



al tzatarren eguna -----

vísperas de la primera independencia de Altza en 1820. Según queda recogido en la documentación: “los límites son con la Villa de Pasajes la Casería de Gomistegui; con la ciudad de San Sebastián, las casas Champarrene, Lizardi, Bonazategui, Ubavea y Esparcho. Con la Villa de Astigarraga, la casería de Garciategui y Irasuenegoya; y con la de Rentería, las caserías de Soroburu, y Iparraguirre, dentro de cuios límites inclusas las denominadas casas, existen ciento quarenta y siete caseríos havitando en ellos, ciento sesenta y cuatro familias”.

Tras la independencia alcanzada después de varios intentos en 1879, Altza recibió el título de Villa en 1910, reafirmando de esta manera su personalidad

DESCRIPCIÓN DEL TÉRMINO MUNICIPAL

En el primer número de la publicación de ALTZA HAUTSA KENDUZ, Mikel Ubillos publicó el “Estudio de los límites del antiguo Municipio de Altza” tomando como base el trabajo topográfico realizado para el Instituto Geográfico y Catastral por Don José Luis Fernando sobre el reconocimiento de la línea de término y la señalización de los mojones que separan los diversos municipios que rodean Altza y el mismo. Es decir con las poblaciones de San Sebastián, Pasajes, Rentería y Astigarraga. Es una línea que circunda unos doce kilómetros cuadrados de extensión.

Para completar nuestra circunscripción hay que añadir el pequeño territorio llamado Altza Basoa, integrado en Donostia Basoa en la actualidad. Es una reminiscencia de los antiguos Montes Francos del Urumea que a lo largo de varios siglos compartieron Donostia, Hernani y posteriormente también Urnieta. Su extensión es de dos kilómetros cuadrados y está descrito su amojonamiento en un Acta de reconocimiento de los lindes entre Rentería y Altza en la zona del Estibaus-2 -----

Urumea en 1889. En este lugar también confinamos con la población navarra de Arano.

Son 118 puntos que se señalan mediante accidentes geográficos, intersecciones y cauces de ríos, etc...; hitos de diversas formas y calidades de materiales caliza, arenisca, silícea, hormigón ; y hasta un árbol llamado “linde-ro” hacia de jalón.

Son pocos los mojones que se conservan debido a las nuevas construcciones tanto viviendas como industrias en la divisoria con Donosti, Pasajes y Rentería han hecho desaparecer buena parte de ellos.

Altza limita con el mar Cantábrico entre la ensenada de Illurgita y Senokozulu, en la bocana del puerto de Pasaia. A partir de aquí, hasta la desembocadura de la ría de Molinao, pasando por la cumbre de Mendiola, la calle Azkuene y bordeando el distrito de Antxo, transcurre la muga entre Pasajes y Altza. Los puntos citados en el deslinde son 24: 4 intersecciones geográficas, 13 hitos de hormigón, y 7 hitos de arenisca.

Entre la desembocadura de la ría de Molinao e Irumugarrieta, pasando por San Marcos, se suceden los mojones que marcan el lín de Rentería con Altza. Los puntos citados son 27: 4 intersecciones geográficas, 4 hitos de hormigón, 12 hitos de arenisca, y 7 hitos de caliza.

En la zona del Urumea, en Altzabaso, son 6 los puntos citados entre Rentería y Altza: 4 hitos de sílice, 1 hito de arenisca, y 1 árbol.

El mojón de Irumugarrieta, hoy desaparecido debajo del vertedero de San Marcos, señala el punto de encuentro de los municipios de Rentería, Altza y Astigarraga. A partir de aquí hasta la sidrería Garziategi junto al río Urumea se encuentra la muga entre Astigarraga y Altza con 28 puntos citados: 9 intersecciones geográficas, 8 hitos de hormigón, 10 hitos de caliza, y 1 hito de silice.

Junto a Garziategi el curso del río Urumea marca el límite entre San Sebastián y Altza. A la altura del caserío Espartxo el límite deja el río y bordeando por fuera Ametzagaiña toma la dirección de la ensenada de Illurgita, nuestro punto de partida. Los puntos citados son 33: 4 intersecciones geográficas, 21 hitos de hormigón, y 8 hitos de arenisca.

FINAL

El término municipal altzatarra es un patrimonio de todos los altzatarras, un bien común que los altzatarras han cuidado y defendido en el pasado y que en el presente debemos conservar en la memoria colectiva de nuestra comunidad, con independencia de la situación administrativa en la que se encuentre Altza en cada momento.*



Etorkizunari begira

(Idatzi hau zirriborro bat baino ez da. Hemen plazaratuko ditugun zenbait baieztapen ezin dira egin azterketa serioago bat egin gabe eta, beraz, aurreiritzitzat har daitezke. Hala ere, eztabaidarako baliagarria izan daitekeelakoan...)

Azken urtetan hitzetik hortzera egon den gaia Altzaren desanexionarena izan da. Hauteskunde garaian gai honen gaineko interesa handiagotu zen (une honetan, berriz, itzali). AHM izan da zurrubilo horretan ere murgilduta ibili den beste bat, eta AHMra jo du honetaz arduratuta dagoen jende asko. Hain zuzen ere, azken hilabeteotan interes hau handitu da eta honek bultzatu du AHM zenbait urrats ematera gai hau bideratzeko ekimenak martxan jartzeko.

Donostiaren periferia

Azken urteotan lau mugimendu desentralizatziale egon dira Donostiako periferian, haien artean differentzi handiak daudela: Lasarte-Oria, Zubieta, Igeldo eta Altza. Denek dute komunean Donostiaren hiru muturretan daudela, Igerentea kaletik urrutienak, eta mesfidantzak handia dutenak Donostiako udalak auzo hauen etorkizunaz har ditzakeen erabakiaz. Hauen artean dauden differentziak, berriz, oso nabarmenak dira.

Lasarte-Oria lau udalerrien artean banaturik zegoen (Usurbil, Urnieta, Hernani eta Donostia) eta inoiz ez zen herria izan. Alabaina, industrializazioa dela medio, hirigune bat sortu zen eta honek sortzen dituen beharrei erantzuteko denek udalerri bat sortzearen beharra ikusi zuten eta, honela, denon interesei erantzun behar zuen herria sortu zen. Udalerrri berriaren eragozpen handienetako bat bere udal derminoia alde urbanora mugatzen dela da, zabaltzeko ia lurrik ez duen udalerria dela alegia.

Zubieta baserri giroko herria dugu, inoiz ere udalerria izan ez dena eta bi udalerrien artean banaturik dagoena, Usurbil eta Donostia. Hemen ere konponbide bat aurkitu diote dauzkaten beharrei: kontzejua. Hauteskundeak

egiten dituzte bere ordezkariek aukeratzeko, presupostu bat eta udalerriek erabakiak hartzeko garaian ahokulariak dira. Adostasun maila handia egon da prozesu guztian herritarrok eta instituzioen artean.

Igeldo ere komunitate txikia da eta baserri girokoa. Kasu honetan udalaren eta herritarren interesak aurre egon dira. Udalak bere indar burokratiko guzia igeldotarren nahiaren kontra jarri du. Hauek, berriz, adorea izan dute auzokideen artean antolatzeko, herritarren artean erreferendumera egiteko eta Donostiako udala epaitegiertara eramateko... eta irabazi. Ahaleginak ez dira nahikoak izan, ordea, eta bide luzea dute aurretik.

Astigarraga (3.500 biztanle) herri nortasuna gordetzen jakin duen herria izan da. Tradizio luzea duka herri independiente bezala eta bere datu ekonomiko eta sozialak oso orekatuak daude: industria-baserria erlazioa, lur eremu zabala, hizkuntza eta klase sozialen proportzioak... Herriko elkarteeek bultzatu zuten desanexioa eta herritarren sostengua izan du beti.

Lau kasu hauek ikusi eta gero **ondorio** hauek atera ditzakegu:

1. Herritarren satisfazio maila altuena independentzia eskuratu duten herritarren artean ematen da (Astigarraga eta Lasarte-Oria), eta baxuena auzo bat gehiago izaten jarraitzen dutenen artean (Igeldo).
2. Independentzia lortu duten herrietan bizi-kalitatearen maila igo da (kirol eta kultur ekipamenduak, ongizate zerbitzuak...)
3. Urbanismoaren eta industrialdeen aldetik ikusita, gainontzeko herriek izan dituzten akats berak izan dituzte: desarrolismoa. Edozer gauzak balio omen du udalaren kutxan dirua sar dadin. Hala ere, badago ezberdintasun nabarmen bat independienteak direnen eta Donostiaren barruan dauden herrien artean. Independienteek garatu duten urbanismoak nolabaiteko autarkia bat bilatu dute herriak dituen beharrak asetzeko: zerbitzuak (kultura, kirola..., etxebizitzak (VPO,

lehen mailakoak..., industrialdeak... Hiriburuaren menpe dauden herriak, ordea, hiriak markatzen dion funtzioa betetzena mugatu behar dira: goi-mailako etxebizitzak egiteko Zubieta, hirugarren sektoreko aktibitateak garatzeko Igeldo, auzo erresidentzialak eta industrialdeak egiteko Altza.

4. Herri independienteak izan arren esateko gutxi izan dute azpiegitura handiei buruz hartu beharreko erabakietan: autobideak, abiadura handiko trena... Kasu hauetan Diputazioak agintzen baitu... Gai honetan hiriburuak ere badauka zer esan handia eta bere arazoak konpontzeko, hauek ere handiak, behar-beharrezko duka periferiako inguruak bere kontrolpean edukitzea. (Donostiar zinegotzi batek baino gehiago azaldu du publikoki gaur egun Astigarragak ere ez lukeela desanexioa lortuko).

Altzako kasua: Abiapuntua

Altzara etorri, oro har gureak ez dauka aurreko beste lau horiekin antzik.

- Lasarte bezala erabateko aldaketak izan ditu populazio eta paisajearen aldetik. Lasarten hirigunea sortzeko balio izan bazuen, Altzan zatitzeko izan da. Gure udalerria, urbanizazio prozesuaren poderioz hamaika **auzoetan sakabanaturik** geratu da, komunikazio bideak lubakiak bihurtu direla.
- **Populazio handia** hartzen du bere baitan, Gipuzkoako hirugarrena Donostia eta Irunen atzetik. Halako egoeran auzolagunen arteko harremanak mugatu egiten dira, inpertsonalagoak egiten dira, eta komunikabideak (prentsa, irrati...) garrantzi handia hartzen dute. Hiritarren arteko harremanak antzeko interesak dauzkatenen artean bideratzen dira: soziedade gastronomikoak, auzo elkartek, kirol taldeak, atsedenaldeko taldeak, emakumeen taldeak... Normalean oso harreman eskasa egoten da elkarrekin artean ere.
- Soziologikoki homogenioegia: klase ertaina eta langilea. Egoera honen aspektu kezkagarrienetako bat

populazioren **interinidadea** da. Joera zabaldua da ahal izanez gero hobetzea. Honek esan nahi du mailaz igotzea, etxe ederragoa, kontsumo aukera handiagoko inguruak, leku politagoak... Interinidad sentimendu horrekin zaila egiten da leku eta komunitate batekin identifikatzea eta are gehiago bere etorkizunarekin. Altza barruan aukera gutxi daude hobetzeko.

Altza Donostia-Irun konurbazioaren barru-barruan dago, Erreenteria, Pasaia eta Donostiarekin kaleak konpartituz. Gutxienez bi ondorio dakartza honek. Batetik, **identitate erabat hiritarra** eta interesak eta beharrak ere hiritarrak. Identitate honek ez du zerikusirik altzatar “zaharrek” transmititzen duten tradizioarekin. Hura rurala zen, bukolikoa, paketsua, naturarekin bat..., oraingoa arrotza, zikina, zaratatsua... Hiritarrak beste arloak baloratzen ditu: garraioak, seguritatea, dibertimendua.

Bigarren ondorioa da arazoak ez direla auzo edo herri batenak bakarrik, konurbazioarenak baizik. Zaborrak non bildu, trafiko arazoak, portua....

Altzak badu tradizioa herri independiente bezala, hala ere azken hamarkadetan bere **identitatearen ikurrak zirenak poliki poliki desegiten joan dira** Donostiaro udalaren erabakiak direla medio eta anexioa burutzerakoan utzitako gutxi hura ere desagertzen joan da (Alza-Buenavista distritua, alkate pedaneo, epaitegia...). Gauza bera gertatu da Altzako auzoetan (Herrera, Molinao..) Intxaurrondon izan ezik. Jendearen artean oinarrizko identitate ikurrak bezala hartzan

direnak ez dira Altzan existitzen (festa eguna, kirol-taldea...).

Egongo dira puntu gehiago aipatzeko baina hauek nahikoak dira Altzaren egungo egoera nolakoa den antzemateko. Laburpen gisa esan dezakegu azken hirurogei urteetan Altzari buruz hartu diren erabaki guztiak Igentea kaletik hartu direla eta altzatarrek ez dutela izan erabakiak hartzeko prozesuan esku hartzerik. Oro har, ondorioak kaltegarriak izan dira. Azken hogeita bost urteetan zenbait hutsune larri zuzentzeko modua egon da gehien bat auzokideen presioari esker (autobusa, eskolak, anbulatorioa, kiroldegia...), eta beste arazo larri konpontzeke segitzen dute udalaren huskeria dela medio (Herrera, Buenavista, Molinao...). Altza ez da altzatarrena. Beste modu batez esanda, Altza ez da existitzen, eta altzatarrak donostiarrok baino ez dira. Dena Donostia eder eta handiaren zerbitzura egon behar du.

Altza etorkizunari begira

Etorkizunari begira jartzen garenean jarrera eta ekarpen ezberdinak egin daitezke. Altzako Historia Mintegiarena, besteak beste, **memoria zaintzea** da. Historia osoa egungo historia da eta, horregatik, historiatik etorkizunera begira jartzen gara, nostalgiarik gabe, atzera jotzeko gogorik gabe (ezinezkoa, gainera).

Egungo altzatarrei gogoratu behar diegu lehen ere altzatarrak egon direla eta lurrarde honetan gu garela haien ondorengoak. Guk erabaki behar dugu zer nahi dugun. Altza auzo “dormitorio” eta inpertsonala ez izatea nahi badugu jarrera **parte hartzaileak** garatu

behar ditugu, arlo guztieta: kirola, festak, kultura... Baita hartzeko dauden erabakietan (etxegintza...).

Donostiako udalari gogoratu behar diogu **Altza herria dela**, egun Donostia barruan dagoen herria. Eta izaera hau formalki ezagutu behar duela. Egun Donostian finkatuta dagoen bakarra kale izendegia da. Auzoak ez daude zehaztuak eta, irakurri ahal izan dugunez, egitekotan daude. Orain da garaia gure ahotsa entzurazteko eta Altzaren herria izaera onartua izan dadin eta bere auzoen osotasuna (Herrera, adibidez) kontuan har dezaten.

Gorago aipatu dugu Altzaren kaos urbanistikoa eta, komunitate bezala ere, bere egoera kaotikoa: altzatarren lurraldea, bizimodua, antolaketa... Azken finean, baserri giroaren irudi ordenatuaren aurrez aurre, hiriaren desordena eta arazo pilaketa dago. Altza hiri bat da, Donostia gainditzen duen hiri handi baten zati bat. Etorkizunari begira jartzen garenean eskema berriagoak erabili behar ditugu. Askotan aipatu izan dira hiriaren ezaugarriak bezala indibidualismoa, isolamendua, elkarleen atomizazioa eta abar. Hiriarena da ere modan dagoen beste hitz bat: **sarea**. Ekonomi arloan, konpetentzia gogorrari aurre egiteko, izugarri garatu dira mota guztiako sareak. Gizarte mailan, ordea, eskasak dira eta are gutxiago Altzan barrrena begiratzen badugu. Sare mota asko eraiki daitezke, haien artean lotuak egon daitezkeenak. Hemen, adibide gisa, bi sare ekarriko ditugu mahai gainera, komunitate bat osatzen lagundi diezaguketenak: Auzo Elkarteen sarea, boterearen aurrean botere bezala jokatu beharko lukeena, eta sare telematikoa, komunikazio eta informazioa.*

Argitararen honen edizioko laguntzailea:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*